


AROSZTEGIAK ETA OSASUNA

Zure lanean, istripu larriak sorrarazten dituzten makina eta tresnekin kontaktuan aritzen zara. Gida praktika honek, zure osasuna ez "ezpaltzeko" oinarizko segurtasun-arauak gogorarazten dizkizu

Adi oholari!



- ZURE LANA ETA ZURE OSASUNA
- SEGURTASUN ARRISKUAK
- ARRISKU ERGONOMIKOAK
- ARRISKU HIGIENIKOAK

ARozTEGIak ETA OSASUNA

Zure Lana eta zure Osasuna


Zeintzuk dira Zure aroztegiko arriskurik garrantzitsuenak?

- Makina eta tresnekin egindako ebakiak eta anputazioak
- Material, tresna, eta abarrez jasotako kolpeak
- Txirbil, ezpal, eta abarren proiektioak
- Produktu kimikoekin kontaktuan egotea, hala nola, disolbatzaileak, bernizak eta kolak
- Zur-hautsa arnastea
- Zarata
- Materialek eragindako sute eta/edo leherketak: disolbatzaileak edo hauts gehiegi egotea
- Beste arrisku batzuk: muntatzean maila berberera edo beste maila batera erortzea, gehiegizko esfortzuak, kontaktu elektrikoak, etab.

Ezagutu behar dituzu?

Egiazkoak eta gerta litezkeela
JAKITEAK ekiditen lagunduko dizu

Ziur aski Kanpoko Prebentzio Zerbitzu
batek egindako Arriskuen
Ebaluazioan barne hartuta egongo
dira



BAdakizu dituzun arriskuak eta orain zer?

Deuseztatu eta ahal beste murrizteko prebentzio- eta babes-neurriak
ezagutu eta bete behar dituzu


Arriskuen Ebaluazioarekin aurkituko dituzu

Segurtasun Arriskuak

Makinak

Zerrek, trontzatzeko makinek, arrabotatzeko makinek, ingleteak egiteko makinek, fresatzeko makinek, etab., aldizka mantendu eta zaintzea eskatzen dute, bai eta behar bezala erabiltzea ere.

- Erabili bakarrik baimenduta dituzun makinak; horrek esan nahi du erabiltzen jakin badakizula eta horren erabilerari buruzko prestakuntza jaso duzula
- Eduki segurtasun-gailuak jarrita. Salbuespen gisa, zerbaitegatik kentzen badituzu, jarri berriro berehalakoan
- Pentsatu *“zura pasatzen den lekutik eskua pasa daitekeela”*, horregatik erabili behar dituzu bultzagailuak. Gogoan izan makinaren zatirik arriskutsuena eragiketa-gunea dela
- Kendu egur-ebakinak, etab. makina geldirik dagoenean. Era beran, aldatu hortzak eta diskoak makina deskonektatuta dagoenean
- Urrundu makinaren mahaitik erabiltzen ez dituzun objektuak, hau da, tresnak eta bestelako lanabesak
- Erabili eragiketa bakoitzerako beharrezkoak diren norbera babesteko ekipoa




ARROZTEGIAK ETA OSASUNA

Tresnak

Lanaldian zehar tresna zorrotz eta ziztatzaileak erabili ohi dituzu.


- Erabili tresnak dagokien erabilerarako eta, akatsen bat hautematen baduzu, ordezka itzazu
- Utzi tresnak dagokien lekuan eta ez itzazu poltsikoetan eraman. Erabili gerrikoak soinean eramateko
- Babestu tresnen alde zorrotzak
- Jarraitu tresna elektriko eta pneumatikoak egin dituzten fabrikatzaileen jarraibideak



kontaktu elektrikoak

Garrantzitsua da hainbat arau betetzea elektrizitate-sarera konektatutako ekipoein kontaktuan egoteagatik egon daitezkeen elektrokuzio-arriskuak saihesteko.

- Ez manipulatu makina eta kaxa elektrikoen barruan
- Motorren borneek, fusibleek, hots, alde aktiboek babestuta egon behar dute
- Kaxa elektrikoek hautsarekiko estanko izan behar dute eta itxita mantendu behar dituzu
- Aztertu aldizka kable, konexio, eta abarren egoera eta, anormaltasunen bat hautematen baduzu, jakinarazi berehala nagusiar
- Makinak lurrera konektatuta egongo dira, isolamendu bikoitzekoak izan ezik (Ⓜ)



Suteak eta Leherketak

Egurra (bereziki zerrautsa eta txirbilak) eta erabiltzen diren beste produktu batzuk sukoiak direnez, hil edo biziko garrantzitsua dute suei aurrea hartzeko neurriak.



- Erabili makinetan zerrautsa eta txirbilak xurgatzeko ekipoak, eta gorde hondakinak biltegitratzeko siloetan eraman edo berreskuratu bitartean
- Garbitu aldizka lantegian dauden zerrautsa eta txirbilak. Oso zerrauts fina pilatzeak sute- edo leherketa-arrisku handia izan dezake
- Gorde bernizak, disolbatzaileak, kolak eta gainerako produktu sukoiak suarekiko erresistenteak diren armairuetan edo kaxa isolatu eta bereizietan
- Ezagutu enpresan instalatutako suteak itzaltzeko baliabideak, eduki oztoporik gabe larrialdietarako irteerak eta esku hartu egiten diren ebakuazio-simulazioetan

Arrisku Ergonomikoak

Zamak biltegitratu eta manipulatzeko

Kargak manipulatzeko gehiegizko esfortzuak edo gihar eta hezurretako arazoak eragin ditzake.

- Antolatu oholak neurri eta lodieren arabera, bereizitako biltegitratze-gune bertikaletan
- Ez pilatu altuera handietan
- Manipulatu zamak bizkarra zuzen, belaunak tolestu, karga tinko helduta, eta gorputzetik ahalik eta gertuen dituzula
- Ahal den guztietan, erabili baliabide mekanikoak zamak garraiatzeko
- Beharrezkoa bada, mugitu zamak beste pertsona baten laguntzarekin

ARROZTEGIAK ETA OSASUNA

Arrisku Higienikoak

Arrisku Kimikoak

Pinturak, kolak eta bernizak erabiltzeak modu ezberdinez eragin diezaioke zure organismoari: begi, sudur eta eztarriko narritadura; errinitisa, alergiak eta asma; larruazaleko gaixotasunak, ekzemak eta dermatitis narritagarria.

- Jarraitu fabrikatzaileak produktuaren Segurtasunari buruzko Datuen Fitxan adierazitako jarraibideak
- Erabili **CE** markaketa daramaten eskularruak, produktuak larruazalarekin kontaktuan egon ez daitezen
- Bernizatzen baduzu, garrantzitsua da kabina izatea. Lehortzeko eremuan ere aireztapen-baldintza onak egon behar dute
- Erabili produktu kimikoetarako **CE** markaketa daramaten maskara bereziak eta betaurreko babesleak bernizatzen duzun bitartean
- Produktuak ontzi batetik bestera pasatuz gero, jarri dagokien ekiteka

Saiatu esekita dagoen egur-hautsa zure organismoari ez eragitea.

- Makinetan xurgagailu zehatzak izanda, giro garbiagoa lortu eta hauts gutxiago arnastuko duzu
- Modu osagarrian, erabili maskara hautsa zure organismoan sar ez dadin
- Mantendu lantegia ondo aireztatuta
- Garbitu xurgatuz



Arotzik onena ez da hatz gutxien dituen, lana egin eta osasuna zaintzen duena baizik. Eduki makinak egoera onean, babesak jarrita, eta babestu zure burua lan-giroan dauden substantziez.